Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

506

AGINDUA, 2009ko urtarrilaren 9koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Erdi-Mailako Teknikarien Kidegoan karrerako funtzionario izendatzeko dena; hain zuzen, 2007ko enplegu publikoko eskaintza onartzen duen Ogasun eta Herri Administrazioa sailburuaren 2007ko uztailaren 12ko Agindutik eratorritako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko urriaren 30eko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren EPE 2007tik eratorritako hautaketa-prozesuak arautu behar dituzten oinarri orokorrak onartzen ditu.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko urriaren 30eko Aginduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Erdi-Mailako Teknikarien Kidegoa, Meatze Ingeniaritza Teknikoko Aukeran karrerako funtzionario bezala sartzeko hautaketa-prozesua deitzen du.

Hautaketa-prozesua amaitu eta gero, IVAPeko zuzendariaren 2008ko abenduaren 4ko Ebazpenaren bidez (2008ko abenduaren 19ko EHAA) hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen eta, halaber, egutegiko hogei eguneko epea ezarri zien hautaketa-probetan onartuak izateko eskaintzen ziren baldintzak eta prozesuan aintzat hartutako merituak betetzen zituztela egiaztatzeko dokumentazioa aurkez zezaten.

Agindu honen eranskinean agertzen diren hautatutako izangai guztiek eskatutako dokumentazioa ezarritako epean aurkeztu zutela eta, bidezkoa da hautatuak izan diren kidegoko karrerako funtzionario izendatzea.

Halaber, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 52.2 artikuluak ezarritakoaren arabera, funtzionario berriak, beraiek adierazi duten lehentasun-hurrenkeraren arabera eta behin betiko hautatu direnen zerrenda lortu duten hurrenkerari jarraituz, bete gabe dauden lanpostuei behin betiko atxikiko zaizkie. Atxikipen hori, ondorio guztiei begira, lanpostuak betetzeko gordetako sistemaren bidez lortutakotzat hartuko da.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

506

ORDEN de 9 de enero de 2009, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se nombra funcionario de carrera del Cuerpo de Técnicos de Grado Medio de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al personal seleccionado en el proceso selectivo de ingreso derivado de la Orden de 12 de julio de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que aprueba la oferta de empleo público para el año 2007.

La Orden de 30 de octubre de 2007 de la Consejera de Hacienda y Administración Pública aprueba las bases generales que han de regir los procesos selectivos para el ingreso como funcionario de carrera derivados de la OPE 2007 de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Orden de 30 de octubre de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, convoca el proceso selectivo para el ingreso como funcionario de carrera del Cuerpo de Técnicos de Grado Medio Opción Ingeniería Técnica de Minas de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Concluido el proceso selectivo, mediante Resolución del Director del IVAP, de 4 de diciembre de 2008 (BOPV, 19 de diciembre de 2008) se publicó el listado de personal aspirante definitivamente seleccionado y, asimismo, se estableció un plazo de veinte días naturales para la presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos para ser admitido a las pruebas selectivas y de los méritos valorados en el curso del proceso.

Habiendo presentado todas las personas seleccionadas que figuran en el anexo de la presente Orden la documentación requerida dentro del plazo establecido, procede su nombramiento como funcionario de carrera del cuerpo en el que han resultado seleccionadas.

Asimismo, de conformidad a lo dispuesto en el artículo 52.2 de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, la adscripción de los funcionarios de nuevo ingreso a las vacantes adjudicadas, conforme a las preferencias por ellos manifestadas y según el orden que han obtenido en la relación definitiva de seleccionados tendrá carácter definitivo y se considerará a todos los efectos como obtenida por el sistema al que está reservada la provisión de puestos.

Horregatik guztiagatik, eta karrerako funtzionario sartzeko hautaketa-prozesuetako oinarri orokorrak arautzen dituen 2007ko urriaren 30eko Aginduaren hamargarren oinarriarekin bat, 2007. urteko enplegu publikoko eskaintzatik eratorrikoak direla eta, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 6.1.i) artikuluak emandako ahalmenez baliaturik, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– 2007ko enplegu publikoko eskaintza onartzen duen Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2007ko uztailaren 12ko Agindutik eratorritako hautaketa-prozesuan hautatutako izangaiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionario izendatzea, agindu honen eranskinean zehazten den moduan.

Bigarrena.– Agindu honen eranskinean adierazten diren izendatutako izangaiek egutegiko hamabost (15) eguneko epea izango dute nor bere lanpostuaz jabetzeko, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Hirugarrena.– Epe barruan, eta ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez dutenek, deialditik eratorriko eskubide guztiak galduko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioaren izaera bereganatzeko.

Laugarrena.– Funtzionario berriak esleitutako lanpostuei behin betiko atxikiko zaizkie eta, atxikipen hori, ondorio guztiei begira, lanpostuak betetzeko gordetako sistemaren bidez lortutakotzat hartuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari eta errekurtsoa jartzeko epea hilabetekoa izango da agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Herriko Auzitegi Nagusian eta horretarako errekurtsoa jartzeko epea bi hilekoa izango da agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 9a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Por lo expuesto, de acuerdo a lo establecido en la base décima de la Orden de 30 de octubre de 2007 de la Consejera de Hacienda y Administración Pública aprueba las bases generales que han de regir los procesos selectivos para el ingreso como funcionario de carrera derivados de la OPE 2007 de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y en uso de las facultades recogidas en el artículo 6.1.i) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca,

RESUELVO:

Primero.– Nombrar funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco al personal seleccionado en el proceso selectivo de ingreso derivado de la Orden de 12 de julio de 2007, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, que aprueba la oferta de empleo público para el año 2007 y que se detalla en el anexo de la presente Orden.

Segundo.– Los aspirantes nombrados que se indican en el anexo de esta Orden deberán tomar posesión de los puestos adjudicados en el plazo de quince (15) días naturales desde el día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercero.– Quienes dentro del plazo establecido, y salvo casos de fuerza mayor, no tomen posesión perderán todos los derechos para la adquisición de la condición de personal funcionario de carrera de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco derivados de la convocatoria.

Cuarto.– La adscripción de los funcionarios de nuevo ingreso a los puestos de trabajo adjudicados tendrá carácter definitivo y se considerará, a todos los efectos, como obtenida por el sistema al que está reservada la provisión de puestos.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Orden de la Consejera de Hacienda y Administración Pública podrá interponerse, ante el mismo órgano, recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o podrá interponerse, directamente, recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de enero de 2009,

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

ERANSKINA

KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATEKO IZENDAPENA EGITEN ZAIEN IZANGAIEN ZERRENDA

NAN	Izen-abizenak	Kidegoa
30651166-D	Judith Burgos del Valle	Erdi-Mailako Teknikarien Kidegoa, Meatze Ingeniaritza Teknikoko Aukera, Meatzeen Ustiaketan Espezialitatea
30570544-W	Arturo Juan González Olaortua	Erdi-Mailako Teknikarien Kidegoa, Meatze Ingeniaritza Teknikoko Aukera, Meatzeen Ustiaketan Espezialitatea

ANEXO

RELACIÓN DE ASPIRANTES A LOS QUE SE NOMBRA FUNCIONARIOS DE CARRERA

DNI	*Apellidos y nombre*	*Cuerpo*
30651166-D	*Judith Burgos del Valle*	*Cuerpo de Técnicos de Grado Medio, Opción Ingeniería Técnica de Minas, Especialidad Explotación de Minas*
30570544-W	*Arturo Juan González Olaortua*	*Cuerpo de Técnicos de Grado Medio, Opción Ingeniería Técnica de Minas, Especialidad Explotación de Minas*